

KUTXA BOULEVARD ARETOAK
SALAS KUTXA BOULEVARD

Alameda del Boulevard, 1
20003 Donostia-San Sebastián

ERAKUSKETA-ALDIA / EXPOSICIÓN
SALA I ARETOA

2008ko uztailaren 3tik abuztuaren 3ra
Del 3 de julio al 3 de agosto de 2008

ORDUTEGIA / HORARIO

Egunero / Todos los días:
11:30 - 13:30 / 17:00 - 21:00



Erakusketei buruzko informazio gehiagorako, ikus:
Para más información sobre las exposiciones dirigirse a:
www.kutxasocial.net

¿qué quieres mañana?


www.kutxa.net



Koldo Badillo



Raúl Esteban



Isabel Díez



Asier Castro

kosta bat, lau begirada una costa, cuatro miradas

ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS

gizarte ekintza
obra social

kultura
cultura



zer nahi duzu bihar?

 kutxa

www.kutxa.net

 kutxa

una costa, cuatro miradas kosta bat, lau begirada



La Costa Vasca se podría tratar desde muy diferentes puntos de vista: deporte, pesca, puertos, sus gentes, etc. Nosotros hemos elegido el **“paisaje natural”** como temática común de esta exposición colectiva, porque a pesar de la fuerte humanización que durante siglos ha sufrido nuestro litoral, admiramos los reductos salvajes que nos quedan y que para nosotros son fuente de inspiración visual.


Nuestro estilo fotográfico no es el meramente documental, como indica la pertenencia de los cuatro autores al colectivo PortfolioNatural.com, desde donde tratamos de defender y divulgar la Fotografía de Naturaleza como obra artística.

Nuestras herramientas: la luz y la composición, siempre van de la mano de nuestra pasión, corazón y emociones. Intentamos que cada imagen transmita al observador un estado de ánimo al contemplarla, en todo caso placentero y de admiración por la naturaleza. Quizá de esta manera también pongamos nuestro granito de arena en el fomento al respeto por la Naturaleza.

Si de alguna manera os llegara alguna de estas sensaciones, estaremos en el buen camino.

¡Qué las disfrutéis!

Koldo Badillo



Euskal Kostari ikuspegi askotatik (kirolaren, arrantzaren, portuen, biztanleen... ikuspegitik) begira dakioke. Guk **“berezko paisaia”** aukeratu dugu taldeko erakusketa honen gai orokor gisa; zeren eta mendeetan zehar gure itsasertzak gizatiartze bizia jasan duen arren, oraindik miresten baititugu geratzen diren gune basatiak, guretzat ikus-inspirazioaren iturri direnak.

Gure argazkigintza-estiloa ez da dokumentala soilik: hori adierazten du lau argazkilariok PorfolioNatural.com-ekoak izateak, bertan Naturako Argazkigintza arte-lan gisa defenditzen eta zabaltzen saiatzen gara eta.

Gure lan-tresnak –argia eta konposizioa– beti dabilta gure grina, bihotz eta emozioekin elkartuta. Saiatzen gara irudi bakoitzak ikusleari sorraraz diezaion gogo-aldarte atsegingarria eta mireslea naturaren aurrean. Agian horrela guk ere geure ekarpentxoak egingo dugu Naturarekiko begirunea sustatzeko.

Era batera edo bestera honelako sentipenen bat iristen bazaizue, bide onean gauden seinale. Goza dezazuela hauekin!

Koldo Badillo



Koldo Badillo, Orduña (Bizkaia, 1958)

koldob@euskalnet.net

www.KoldoBadillo.com

Biólogo de formación, encontró en la fotografía la forma de acercarse a su otra pasión: la naturaleza. Trabaja en el mundo de la imagen como cámara, en el control de cámaras y como realizador de TV, actividades estrechamente relacionadas con la fotografía.

Ehun bat sari bereganatu ditu argazki-lehiaketetan estatu osoan zehar: Bilbo, Salamanca, Sahún, Zarautz, Irun, Iruñea... Bere argazkiak ezagutzeko aukera izan dugu hainbat hiritan (Bilbo, Basauri, Donostia, Zarautz, Iruña, Valladolid, Madril...) berak bakarrik egindako berrogeiren bat erakusketetan. Argazkigintzaren barruan, berezko paisaia eta bidaia-erreportajeak dira interes handienaz lantzen dituen gaiak.

"PortfolioNatural.com" paisaiaren artista-taldearen bazkide eta sortzaileetako bat da. Bere erreportajeak hainbat aldizkaritan eman dira argitara "Euskal Herria", "Pirineos", "Viajes y vacaciones", "De viajes", "National Geographic Viajes" eta abarretan, eta paisaia-liburu hauetan: "Orduña, puerta del Señorío", "Árboles singulares de España" eta abarretan; hainbat egunkaritako kolaboratzaile ere bada.

"Colores de Navarra", bere lehen autore-liburua, 2006an eman zuen argitara.

Biólogo de formación, encontró en la fotografía la forma de acercarse a su otra pasión: la naturaleza. Trabaja en el mundo de la imagen como cámara, en el control de cámaras y como realizador de TV, actividades estrechamente relacionadas con la fotografía.

Ha cosechado un centenar de premios en concursos de fotografía a lo largo de toda la geografía estatal: Bilbao, Salamanca, Sahagún, Zarautz, Irún, Pamplona...

Hemos tenido ocasión de conocer sus fotografías a través de más de cuarenta exposiciones individuales realizadas en distintas ciudades: Bilbao, Basauri, Donostia, Zarautz, Pamplona, Valladolid, Madrid...

Las temáticas que desarrolla con mayor interés, dentro del mundo de la fotografía, son el paisaje natural y los reportajes de viaje.

Es socio y uno de los fundadores del colectivo de artistas del paisaje "PortfolioNatural.com"

Sus reportajes han sido publicados en revistas como "Euskal Herria", "Pirineos", "Viajes y vacaciones", "De viajes", "National Geographic Viajes"...etc. y en los libros de paisajes "Orduña, puerta del Señorío", "Árboles singulares de España" etc.; también colabora de forma habitual con diversos diarios.

"Colores de Navarra", su primer libro de autor, fue publicado en 2006



HENDAIKO EGUZKIA HILURREN / MUERE EL SOL DE HENDAIA
Egilea / Autor: Koldo Badillo



INFERNU-ARGIA ZARAUTZEN / LUZ INFERNAL EN ZARAUZ
Egilea / Autor: Koldo Badillo

una costa,
cuatro miradas

raúl esteban

kosta bat
lau begirada



Raúl Esteban (Baracaldo, 1972)

r.esteban.lerma@gmail.com

www.naturalimages.com.es

Natura sentitzeko, gozatzeko eta bertan egoteko aitzakia gisa egiten dizkio naturari argazkiak, edertasunezko unetxo bat lapurtzeko itxaropen bakarrarekin. Autodidakta da 1999az geroztik, eta paisaiaren argazkigintzan dago espezializatua. Bere argazkiak Espainiaren iparraldeko baso eta mendietan egiten ditu, batez ere Euskal Herrian eta Pirinioetan, eta Kantauri itsasoko kostaldean. Eta noizean behin atzerriara irteten da.

Bere irudiak hainbat liburutan argitaratu ditu, eta estatuko eta nazioarteko hainbat argitalpenetan lan egin ohi du: *Basque Magazine*, *Pyrénées Magazine*, *National Geographic Viajes*, *Integral*, *Conocer Navarra*, *Visión Salvaje*, *Naturaleza Salvaje* eta abar.

Bere lanak zenbait argazkigintza-lehiaketatan saritu dituzte; adibidez: Ohorezko Aipamena *Naturako Erreportajerik* onenari Colmenar Viejo-n, eta Bildumarik Onenari Lleidako *Oscar Ribes* lehiaketan; baita beste batzuk ere *Trofeu Montbarbat*, *Gironako Naturalistak*, *Oñatiko Mendi Argazkilaritza* eta abarretan.

Bere artxiboa estatuko eta nazioarteko agentzien bidez banatzen da. Zabalkunde- eta irakaskuntzala paisaiaren argazkigintzako lantegien bidez egiten du, bai Pirinioetan, eta bai Kantauri itsasoko kostan.

Fotografía la naturaleza como pretexto para sentirla, disfrutarla y estar en ella, con la única esperanza de robarle tan solo un instante de belleza. Lo hace de manera autodidacta desde 1999, estando especializado en fotografía de paisaje. Su actividad fotográfica se realiza principalmente en los bosques y montañas del norte de España, en especial del País Vasco y Pirineos, y en la costa Cantábrica. Además de puntuales viajes al extranjero.

Sus imágenes aparecen publicadas en varios libros, y colabora habitualmente con diferentes publicaciones nacionales e internacionales como *Basque Magazine*, *Pyrénées Magazine*, *National Geographic Viajes*, *Integral*, *Conocer Navarra*, *Visión Salvaje*, *Naturaleza Salvaje*, etc...

Sus obras han sido premiadas en diferentes concursos nacionales de fotografía, como ejemplo la Mención de Honor al mejor *Reportaje de Naturaleza* en Colmenar Viejo y la Mejor Colección en el *Concurso Oscar Ribes de Lleida*, así como otros en el *Trofeo Montbarbat*, *Naturalistas de Girona*, *Fotografía de montaña de Oñati*, etc...

Su archivo se distribuye a través de agencias nacionales e internacionales.

La faceta de divulgación y de docencia la realiza impartiendo talleres de fotografía de paisaje tanto en los Pirineos como en la costa Cantábrica.



ITSASOKO TAPAKI LEUNA / SUAVE MANTA DE MAR
Egilea / Autor: Raúl Esteban



BARETASUNAREN ITSASOA / EL MAR DE LA TRANQUILIDAD
Egilea / Autor: Raúl Esteban

una costa,
cuatro miradas



Isabel Díez (Bilbao, 1966)

isabel.diez@ehu.es

www.isabeldiez.com

Paisaia naturalaren argazkigintzak ahalbidetu dio **Isabel Díez**-i bere bi grina handiak elkartzea: natura eta artea. Argiaren eta harmoniaren bilaketan, bere begirada eszenatoki irekiek eta abstrakzio txikiek liluratu dute. Kolorearen erabilera nagusi da bere lanetan, nahiz eta egin dituen sail batzuk zuri-beltzean ere.

Bere lanaren kalitatea hainbat argazki-sariketatan aitortu diote: bi Highly Commended lortu zituen "European Wildlife Photographer of the Year" lehiaketan (2006 eta 2007. urteetan) eta lau Highlight naturako argazkigintzaren "Glanlichter" nazioarteko sariketan (2005 eta 2008. urteetan). Halaber, bere lanak hainbat herrialdetako (Austria, Txina, Espainia, Frantzia eta Erresuma Batuko) Nazioarteko Aretotan saritu dituzte, eta estatuan osperik handiena duten Naturako Argazkigintza Lehiaketetan (Colmenar Viejoko Ingurumena, Girona Naturalistak, Trofeu Montbarbat). Duela gutxi Argizaiola Trofeoa eman diote, ospe handikoa euskal lehiaketan artean. Argazkigintzako Espainiar Konfederazioak ACEF (Artista) titulua ere eman zion 2006an. Argazki-lehiaketetan epaimahaikide izan da. Bere irudiak hainbat liburutan ageri dira eta hainbat aldizkaritan eman dira argitaratu, besteak beste, hauetan: "Visión Salvaje", "FV", "IRIS", "Natura Magazine", "Arte Fotográfico", "France Photographie", "Paradores" eta "Fotonatura.org". Berrogeita hamar talde-erakusketara baino gehiagotan parte hartu du, eta nabarmentzekoak dira: "Portfolio Natural - Una Mirada Creativa" (Madril, Valladolid, Burgos, Nafarroa, Valentzia), "Cuatro Estaciones" (Lleida, Toledo, Burgos), eta "Fotografía de Naturaleza en España" (Madril).

La fotografía del paisaje natural le ha permitido a **Isabel Díez** unir sus dos grandes pasiones: la naturaleza y el arte. En su búsqueda de la luz y la armonía, su mirada se ha dejado seducir tanto por escenarios abiertos como por pequeñas abstracciones. El empleo del color es predominante en su obra, aunque también ha realizado diversas series en blanco y negro. La calidad de su trabajo ha sido reconocida en numerosos certámenes fotográficos, habiendo obtenido dos Highly Commended en el concurso "European Wildlife Photographer of the Year" (años 2006 y 2007) y cuatro Highlights en el certamen internacional de fotografía de naturaleza "Glanlichter" (años 2005, 2008). Asimismo, sus obras han sido premiadas en Salones Internacionales de diversos países (Austria, China, España, Francia, Reino Unido) y en los Certámenes de Fotografía de Naturaleza más prestigiosos a nivel estatal (Medio Ambiente de Colmenar Viejo, Naturalistas de Girona, Trofeo Montbarbat). Recientemente le han concedido el Trofeo Argizaiola, prestigioso galardón entre los concursos vascos. Distinguida por la Confederación Española de Fotografía con el título ACEF (Artista) en 2006. Ha sido invitada como miembro del jurado de diversos certámenes de fotografía. Sus imágenes han ilustrado libros y han sido publicadas en numerosas revistas: "Visión Salvaje", "FV", "IRIS", "Natura Magazine", "Arte Fotográfico", "France Photographie", "Paradores" y "Fotonatura.org" entre otras. Ha participado en más de 50 exposiciones colectivas, entre las que destacan: "Portfolio Natural - Una Mirada Creativa" (Madrid, Valladolid, Burgos, Navarra, Valencia), "Cuatro Estaciones" (Lleida, Toledo, Burgos), y "Fotografía de Naturaleza en España" (Madrid).



Egilea / Autor: Isabel Díez



Egilea / Autor: Isabel Díez



Asier Castro (Bilbao, 1975)

asier@ikusibilbao.com

www.ikusibilbao.com

Aitaren eskutik hasi zen argazkigintzan, hark erakutsi baitzion bai kamera erabiltzen eta bai zuri-beltzean laborategian errebelatzen.

Ehun sari baino gehiago lortu ditu bai estatuan eta bai nazioartean, eta horietatik aipagarrienak: ACEF (Espainiar Konfederazioaren Artista) titulua 2005ean. Bigarren paisaia-saria "European Wildlife

Photographer of the Year" delakoan 2007an. Urrezko domina "Al-Thani Award. 2007"an edo bi Highlight Alemaniako "GLANZLICHTER"en 2008an. Eta gainera, FIAP-Argazki Artearen Nazioarteko Federazioaren zenbait domina.

Gaur egun, diseinatzaile grafiko gisa lan egiteaz gain, irudiak saltzen ditu serie mugatu eta zenbakituetan. Bere lanak hainbat aldizkaritan eman ditu argitara: *Visión Salvaje*, *Conocer Navarra*, *Neu*, *Pyrénées Magazine*, *Basque Magazine*, *National Geographic* eta abarretan. Eta zenbait liburutan ere parte hartu du: José Benito-ren "La fotografía creativa del paisaje", eta "Visión Salvaje. 2006". *F.I.A.P.*, *C.E.F.*, *Portfolionatural* eta *Gipuzkoako Argazkilari Elkarte-ko kide da*.

Se inicia en la fotografía de la mano de su padre, el cual le enseña tanto el manejo de la máquina como el revelado en laboratorio en B&N.


Ha obtenido más de 100 galardones tanto nacionales como internacionales, de los cuales destacan: el título de ACEF (Artista de la Confederación Española) en 2005. Segundo premio en paisaje en el "European Wildlife Photographer of the Year" en 2007. Medalla de oro en el "Al-Thani Award. 2007" o dos Highlight en el "GLANZLICHTER" de Alemania, en 2008. Además de diferentes medallas de la F.I.A.P. (Federación Internacional de Arte Fotográfico).

En la actualidad, compagina su trabajo como diseñador gráfico con la venta de imágenes en series limitadas y numeradas. Ha publicado en diferentes medios como *Visión Salvaje*, *Conocer Navarra*, *Neu*, *Pyrénées Magazine*, *Basque Magazine*, *National Geographic*... etc. Ha colaborado en la elaboración de diferentes libros como: "La fotografía creativa del paisaje" de José Benito y en el libro "Visión Salvaje. 2006".

Es miembro de la F.I.A.P., de la C.E.F., de *Portfolionatural* y de la *Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa*.



JAUZIA / EL SALTO
Egilea / Autor: Asier Castro



ZIMUR IGAROKORRAK / ARRUGAS PASAJERAS
Egilea / Autor: Asier Castro